11. Lorategiak eta hiri-parkeak

1. Sarrera. Espazio berdea hiriko espazio publikoen sarearen hirugarren elementua da, kalea eta plazarekin batera. Lorategia zera da (*Harluxet*en arabera): hiri barruko espazio berde mugatua, nagusiki landarez hornitua, jendearentzat irekia egoten dena eta ekipamendu publiko gisa pentsatua dagoena.
    - Lorategien hiru elementu nagusiak: landaredia, ura eta esparrua (hesitua ala ez; garai historikoaren arabera itxia ala irekia da; *garten* termino alemaniarrak "esparru itxia" esan nahi du).
    - Natura eta artifizioa uztartzen dituen hiri-elementua da. Adibidea: Central Park, New York (Olmsted arkitektoak egina, 4.000 x 800 m).
    - Lorategiaren hiru ezaugarri edo dimentsioak: Erabilgarritasuna (baratza gisa), gozamena (giza-zentzumenen plazerrerako) eta sinbolismoa edo mitoa (paradisua adierazten duen metafora gisa).
2. Lorategiaren hastapenak eta lehen esparruen geometriak: zirkulua, laukia eta gurutzea. Adibideak: Goseck behatoki astronomiko neolitikoa, K. a. 5.000, Alemania. Burdin Aroko Mendiluzeko harrespila eta lau zutarriak (bi handienek udako solstizioko eguzkiarekin erlazionaturik daude), K.a. 750, Entzia-Iturrietako partzuergoa, Araba.
3. Mesopotamia: Babiloniako lorategi eskegiak (antzinateko 7 mirarietako bat; ingeniaritza hidraulikoaren erakusgarria, noriak erabiltzen zituena ureztatzeko) eta ziguratak (mendi erdi naturalak, erdi artifizialak, ibaien uholdeetatik babesa eskeintzen zutenak: Tell Lidar, Eusfrates ibaiaren ondoan. Aqarquf, K. a. 1.350. Ur, gaurko Irak).
4. Egipto: Lorategi domestikoa: erabat itxia (babeserako), lerro zuzenekoa, etxea baino handiagoa, nekazal ekoizpena (zuhaitz frutalak, mahatsondoak) eta plazerra (loreak, estankeak). Sinbolismoa lorategi monumentalean ere lantzen zuten, natura harri bihurtuz: Mendiak harri bihurtuta piramideak sortzen dira; Zuhaitzak eta landareak (lotoa, papiroa) harri bihurtuta, kolomak.
5. Grezia: Antzerako sinbolismoa ikus daiteke greziarren kolomaburu edo kapiteletan, akantorriak irudikatzen dituztenak. Greziako lorategia xumea da, etxearekin erlazionatua, eta patio hesitu modukoa. Adibidea: Prieneko patio-etxea. Tenplu-megaroietan (K. a. 1.500) antzerako esparruak zeuden, erromatarren *hortus*aren aitzindaria.
6. Erroma: Lorategi herrikoia edo nekazal girokoa erabilgarritasunarekin erlazionatua dago (*hortus* delakoa); etxeen atzekaldean kokatua zegoen. Hiri-lorategia, aldiz, handiagoa zen eta gozamenarekin erlazionatuagoa. Peristiloak agertzen dira, portikoak lorategiaren inguruan. Adibideak: Ponpeiako Faunoren etxea. Villa dei Papiri, Herkulano (Kalifornian berreraikia). Villa Liviako margoak. Landetxe handietan lorategiak irekitzen dira, ikuspegiak zainduz: Hadrianoren landetxea, Tivoli, K. o. 118; munduan ikusitako mirariak berreraiki zituen bere landetxean.
7. Erdi Aroan lorategia itxi egiten da (*hortus conclusus*), ez du perspektibarekin jolasten. Batez ere, monastegietako kalostran garatzen da lorategi-baratza, kutsu sinboliko handia duena (33ren neurri multiploa izan ohi zuen, Jesu Kristoren ustezko adina hiltzerakoan). Adibideak: Kartuxak (Grenobleko kartuxa handia). Royaumonteko monastegia. Fossanovako monastegia. Monastegi handiek 3 lorategi ezberdin zituzten: barazkienak, zuhaitzenak eta loreenak. Adibidea: Sankt Gallen, Suitza (kalostra, hilen lorategia –hilerria-, lorezainaren etxea eta barazki-lorategia, hospitaleko lorategia –lorategi medizinala-).
8. Lorategi arabiarra: *Pairideza* termino persiarrak "hesitua" esan nahi du (*garten* alemanak bezala) eta paradisu terminoa handik omen dator. Beraz, arabiarrentzat ere, lorategia paradisu galduaren ikurra da. Lorategi arabiar domestikoak, atrio erromatarrak bezalaxe, izozkailu gisa funtzionatzen du. Jauregietako lorategiek zentzumenetarako plazerra bilatzen dute (usaimena, soinua eta kolorea zainduz), eta perspektiba lantzen dute. Adibidea: Granadako Alhambra (Lehoien patioa, Alberkaren patioa, Comares jauregitiko bistak).
9. Lorategi pizkundearra: lorategi italiar eskenografikoa. Adibideak: Bramanteren Belvederea, Erroma. Bernardo Rosellinoren Pienzako plaza eta Piccolomini jauregia (UNESCOren ondare izendatua). Lorategia Serlioren tratatuetan (*ars topiaria* delako artea). Pirro Ligorioren Villa d'Este, Tivoli, XVI (UNESCOren ondare; organo hidraulikoak, 500 iturri inguru, leizea, lorategia abentura gisa).
10. Barrokoa: lorategi frantses arrazionala. Adibideak: Andre Le Notreren Vaux Le Vicomte –jabea Nicolas Fouquet zen; 1.500 metroko ardatza Hercules Farnese heroiaren estatuan bukatuz; lorategi osoak 3.000 x 1.200 metro ditu (33 bat hektarea)- eta Versalles, XVII (Luis XIV.arentzat egina; lorategiek 100 hektarea inguruko azalera dute). Karlsruheko jauregia eta lorategia (XVIII. mendekoa), hiri osoaren egituraren oinarri.
11. Erromantizismoa: paisai-lorategi ingelesa. "Paisai naturalista" eta pintoreskoaren ideia. Adibideak: Capability Brownen Stowe eta Chiswick, XVIII. Eragina XIX. mendean: Olmsteden Central Park, 1858.